

**KUTXABANK BULEGO IBILTARIEN JARRAIPENA ARABAKO  
UDALERRIETAN**

Kutxabankek landa-eremuko udalerrietan bulego mugikor ibiltaria mantenduko duela jakinarazi nahi dizugu. Finantza-erakunde honek horrela erantzun dio Arabako Lurralde Batzordearen proposamenaren ondorioz, EUDELeko Batzorde Betearazleak Kutxabankeko Lehendakariari bulego hori kentzeko erabakia berriro aztertzeko luzatu zion eskaerari.

Ildo horretan, Kutxabankek EUDELi jakinarazi dio Bulego Ibiltaria orain arte egondako udalerrri guztiak atenditzen jarraituko duela eta, hala ere, bisiten maiztasuna gutxitu behar duela kostuak murrizteko asmoz.

Kutxabankek kaltetuta aterako liratekeen udaletatik sortutako eta EUDELe bideratutako eskaera kontuan hartu du. Horren arabera, udalerrri horietako herritarrek aurrez aurreko gertuko atentzio hori oso ondo baloratu dute, batik bat, adinekoek eta mugitzeko arazoak dituztenek, haien herrietan finantza-gestioak egiteko bulegorik ez daukatelako.

Jarraian, udalerrri bakoitzean Bulego Ibiltarien egutegi berria zehazten dugu:

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA 1. eta 3.	ASTEAZKENA 2. eta 4	OSTEGUNA	OSTIRALA
Salinillas de Buradón	Bóveda	Fontecha	Navaridas	Leza	Gopegi
Peñacerrada	Salinas Añana	Armiñón		Samaniego	Zambrana
Cripán	Puentelarrá	Albaina		Moreda	Berantevilla